

Donostia munduko 200 hiri zientifiko nagusien artean, *Nature-n* esanetan

Aldizkariaren arabera, Gipuzkoako hiriburua munduko ikerketa-zentro zientifiko kolaboratiboena da

Nature aldizkariak ekoizpen zientifiko gehien dituzten munduko 200 hiriburu eta metropoli-eremu nagusien ranking-a argitaratu du, eta horien artean dago Donostia.

Hain zuzen ere, Gipuzkoako hiriburua 2017. urtean zenbaketa zatikatuaren bidez egindako zerrendako 198. postuan dago, eta bertan, mundu mailan tamaina eta pisu handia duten hiriburuak eta metropoli-eremuak jaso dira. Estatuko gainerako hirietatik, Madril, Bartzelona eta Valentzia bakarrik agertzen dira Donostiarekin batera rankingean.

Eneko Goia Donostiako alkateak uste du sailkapen honetan hiria aipatu izanak “berresten duela zientziaren eta ezagutzaren alde aspalditik egiten ari garen apustua, bai erakundeen aldetik, bai beste eragile publiko eta pribatu batzuen aldetik ere”. Hala, “Donostian oinarritutako ikerketa-zentroen sare trinkoa, “Donostia International Physics Center-ekit hasita, unibertsitateak, Tecnalia, CiC Biomagune, Nanogune eta beste ikerkuntza polo batzuk, eta esparru pribatuko ekimen asko, gure hiria ezagutzarako bide egokia bihurtzen dutenak” nabarmendu du.

Albiste bikaina da hiriarentzat, eta, gainera, kanpoko lankidetzari dagokionez, buruan kokatzen da. Hau da, Gipuzkoako hiriburua liderra da beste leku batzuetako ikertzaleekin batera idatzitako artikulu zientifikoak egiten.

Horrela, *Naturek* indartu egiten du Donostiaren zeregina, munduko ikerketa-zentro kolaboratzaileeneko bat baita ekoizpen zientifikoko lanak garatu eta gauzatzeko orduan. Halaber, berretsi egiten du hiriko Estrategiaren Zientziaren eta Berrikuntzaren aldeko konpromisoa eta apustua.

Ranking osoa “Nature Index 2018 Science Cites” atalean ikus daiteke, *Nature Index-en* webgunean: <https://www.natureindex.com/supplements/nature-index-2018-science-cities/tables/overall>

Donostia / San Sebastián entre las 200 principales ciudades científicas del mundo, según Nature

La revista sitúa a la capital guipuzcoana en primer lugar como centro de investigación científica más colaborativo del mundo

La revista *Nature* ha publicado el ranking de las 200 principales capitales y áreas metropolitanas del mundo con mayor número de producciones científicas y, entre ellas, se encuentra Donostia / San Sebastián.

En concreto, la capital guipuzcoana se sitúa en el puesto 198 de la lista elaborada por conteo fraccional en 2017 y que incluye a las capitales y áreas metropolitanas de gran tamaño y peso a nivel mundial. Del resto del Estado, únicamente Madrid, Barcelona y Valencia acompañan a Donostia / San Sebastián en el ranking.

El alcalde de Donostia / San Sebastián, **Eneko Goia**, considera que la mención de la ciudad en este ranking “corrobora la apuesta que llevamos haciendo desde hace años por la ciencia y el conocimiento, tanto desde el ámbito institucional, como de otros actores públicos y privados”. Así, ha destacado la “tupida red de centros de investigación con base en Donostia, “empezando por el Donostia International Physics Center, las universidades, polos del +D+I como Tecnalia, CiC Biomagune, Nanogune y muchas otras iniciativas del ámbito privado que convierten a nuestra ciudad en un entorno propicio y atractivo para el conocimiento”.

Se trata de una excelente noticia para la ciudad que, además, se sitúa a la cabeza en lo que a colaboración externa se refiere. Es decir, la capital guipuzcoana es líder en la elaboración de artículos científicos escritos en coautoría con investigadores de otros lugares.

Nature refuerza de esta manera el papel de Donostia / San Sebastián como uno de los centros de investigación más colaborativos del mundo a la hora de desarrollar y llevar a cabo trabajos y labores de producción científica. Reafirma, asimismo, el compromiso y la apuesta por la Ciencia y la Innovación de la Estrategia de la ciudad.

El ranking completo puede verse en la sección "Nature Index 2018 Science Cites" del la web de Nature Index:

<https://www.natureindex.com/supplements/nature-index-2018-science-cities/tables/overall>